



Hego Euskal Herriko lau probintzietan Espainiako Parlamenturako hautatutako politikarien bizitza eta jarduna ikertu ditu hiztegiak.

# Espainiako Parlamentua, aspaldiko lantokia

Gaur bezala atzo, Espainiako Parlamentua ez da etxe arrotza izan euskaldunentzat. Unibertsitateko ikerle talde batek 1876-1939 artean hautetsi izan ziren 317 pertsonaz osatutako biografia hiztegia egin du Europako tradizio historiografikoan inspiratuta.

**MADRILERA** joateko hainbat eta hainbat politikari aukeratu dituzte euskal herritarrek iragan hauteskundeetan. Ez da gauza berria. Espainiako Kongresuak eta Senatuak ia bi mendeko bizitza dute eta Euskal Herriko ordezkariak ongi ezagutzen dituzte hango txokoak. Berriki *Diccionario biográfico de los parlamentarios de Vasconia (1876-1939)* liburua kaleratu du Eusko Legebiltzarrak, unibertsitateko ikerle talde batek egina. Hiru liburuki eta 2.800 orrialdeetan, Hego Euskal Herriko lau probintzietako 317 pertsonaien bizitza politikoa, testuinguru pertsonala eta zirkulu sozio-kulturala aztertu dute. Ikerlana 1808-1876 arteko beste baten jarraipena da, duela hamabost urte argitaratua hura.

Biografia hiztegiek tradizio luzea dute Europan. Estreinakoz Erresuma Batuan osatu zen (*The Biographia Britannica...*) eta XIX. mendeko Estatu liberalen bultzadaz gainerako herrialdeetan. Frantzia 1933an hasi eta oraindik ez dute bukatu; Espainian, berriz, hasi berriak dira zeregin horretan. Esan liteke bere historia zaintzen duen herri orok sustatu behar lukeela horrelako ondarea. Zentzu horretan, Euskal Herriko parlamentarien hiztegia aurrerapauso itzela da.

## Errestaurazio mugatutik errepublika askera

Borboiak Espainiako tronora itzuli zirenean monarkia parlamentarioari hasiera eman zitzaion, 1876ko konstituzioarekin. Diputa-

## URKO APAOLAZA



Liburuaren egileak:  
J. Agirreazkuenaga,  
E. J. Alonso,  
G. Castaño, J. Chueca,  
A. Delgado, J. Gracia,  
F. Martínez, J. Penche,  
J. A. Pérez, C. Rilova,  
S. Serrano, Mikel  
Urquijo.

tuen hautaketa mugatua zen, edonork ezin zuen botoa eman eta hautetsi izateko ere baldintza zorrotzak zeuden –diputatuek ez zuten soldatarik jasotzen, hortik lehenengo traba herritar soilarentzat–. Gainera, 1890 eta 1907ko legeek sistema “kazikista” ziurtatu zuten. Probintziak barruti ezberdinetan osatu-

ta zeuden eta korrelazio politikoaren arabera, agintari liberalek interesatzen zitzaizkien barrutiak sortu zituzten –karlistei kalte egiteko, besteak beste–.

1931n Errepublika ezarri zenean aldaketa ugari egon zen: herriaren subiranotasuna, sufragio unibertsala, “klientelismo” edo itzalkeriarekin akabatzeak neurriak... Baina hori guztia Francok boterea hartzean bertan behera geratu zen.

## Atik Zra, lehen eskuko iturriak

Horrelako ikerlan erraldoi baten printzipio nagusienetakoa da lehen eskuko iturriak erabiltzea. Hiztegiaren egileek Espainia eta Euskal Herriko artxibo asko arakatu dituzte –Kongresuko eta Senatu-ko artxiboak ezinbestean–, eta bibliografia eta hemerografia ugari ere erabili dute Euskal Herriko hautetsien bizitza miazteko.

Dato, Agirre, Oriol, Irujo, Oreja... Abizen ezagunak daude ikertutako pertsonaien artean. Kuriositate bat: Diputatu bakoitza 2'35 alditan izan zen aukeratua batz bestea, hau da, errepi-  
katu egin zutela. Madrilgo eltzekoa gustatu egin zitzaion antza! ■